

BALIO PROPOSAMENA



Gure proiektuaren izena FIND da, hau, lokalizazailea duen pegatina bat da. Pegatina honek txip bat du eta honi esker momentu oro hau daraman objektua non dagoen jakin dezakezu, mugikorretan eta ordenagailutan erabili daiteken aplikazio baten bitartez. Gure bezeroek denbora aurreztuko dute, galdutako objektuen bila ibili ordez, beraien eginkizun bakarra gailua non dagoen aplikazioan begiratzea izango baita.

Segurtasuna bermatzeko, erabiltzaile bakoitzak bere kontua izango du aplikazioan, pasahitz batez babestua. Beraz, erabiltzaileak soilik izango du bere objektua non dagoen jakiteko aukera. Gailu txikia izango denez, giltzetan edo mugikorrean itsatsi eta soinean modu erosoan eramateko modukoa izango da.

Espainia mailan mota honetako objektuak ez direnez oso ezagunak, berrikuntza izugarria izango da herritarrentzat eta hutsune horretaz baliatuko gara gure produktuari hasierako bultzada emateko. Hala ere, gure salmenta eremua ez da bertan bukatuko; hau da, online salduko dugunez, beste hainbat herrialdetara bidaltzeko ahalmena ere izango dugu.

Honelako produktuak dagoeneko ekoizten dira atzerrian, eta guk AEBn diharduen TILE enpresarengana joko dugu produktuaren kalitatea bermatzeko. Hau, enpresa liderra da txipen industrian, eta esperientzia handikoa; ondorioz, hornitzaile onena izango dela uste dugu.

Azkenik, FIND guztientzat ekonomikoki lorgarria izatea nahi dugu inork zailtasunik izan ez dezan ekonomikoki gure produktua erosteko.